

# Zeinentzat eginak?

Ane Labaka Mayo



Gabonetan, jostailuen iragarkiz betetzen zaigu telebista eta etxeko postontzia. Baina neskei eta mutilei uzten al digute nahi dugunarekin jolasteko aukera?

## *Doinua: Zeruari begira* Zortziko txikia

1 Propagandak egiten gaitu **ezberdinak** Gabonetan markatzen dira bi **erpinak**; jostailu arrosa eta jostailu **urdinak...** Argi dago zein diren zeinentzat **eginak**.

2 Baloi bat desio du **Ane pinpirinak** kotxe telegidatu, barku, **hegazkinak** ezpata luze eta piraten **ipuinak...** Baina hauek ez dira beretzat **eginak**.

**Aner**rek nahi lituzke laguntzat **panpinak** edabeak egiten dituzten **sorginak** soinekodun printsesa edo **erreginak...** Baina hauek ez dira beretzat **eginak**.

**Jone**ren obsesio pieza **arinak** legoekin osatu nahian **eraikinak** grua altuak eta **hondeamakinak...** Baina hauek ez dira beretzat **eginak**.

**Jon**en gustuko dira sukalde **izkinak** trapu batez garbitzen ditu **zipriztinak** plastikozko lapiko eta **zartaginak...** Baina hauek ez dira beretzat **eginak**.

**Julek** belaunburuak nahi ditu **zikinak** Supermanen marrazki bat duten **patinak** jantzita jaitsi ditzan aldapa **haundinak...** Baina hauek ez dira beretzat **eginak**.

**Julene**k pintatu nahi ditu ezpain **finak** probatu makillaje hautsak ta **lurrinak** pultsera forma hartu ohi duten **buztinak...** Baina hauek ez dira beretzat **eginak**.

Funtsean ez garenez horren **ezberdinak** morez zirriborratu ditzagun **erpinak** baloi arrosak eta panpina **urdinak...** Behingoz izan daitezen denontzat **eginak**.